

## LEHENHEZKUNTZAKO GRADUA

2016/2017 ikasturtea

### NOLA HEZI BALOREETAN GIZARTE POSTMODERNOAN

**Ikasketa Zerbitzuan eta Ikasketa Dialogikoan oinarritutako  
proposamena**

**Egilea: Nerea Velasco Valbuena**

**Zuzendaria: Joseba Azkarraga Etxagibel**

**Leioan, 2017ko maiatzaren 29an**



## AURKIBIDEA

Sarrera .....	3
1. Marko teorikoa .....	4
1.1. Gizarte postmoderno .....	5
1.2. Baloreak: zer eta zertarako? .....	6
1.3. Heztearen kontzeptua .....	7
1.4. Nola hezi baloreetan .....	8
1.4.1. Ikuspegi historikoa .....	8
1.4.2. Ikuspegi pedagogikoa .....	9
1.4.3. Ikuspegi metodologikoa .....	9
2. Metodologia .....	11
3. Lanaren garapena .....	13
3.1. Baloreetan hezteko metodoa .....	13
3.1.1. Metodologiaren oinarriak .....	14
3.1.2. Metodoaren justifikazioa .....	15
3.2. Metodoan oinarritutako proiektua .....	15
3.2.1. Proiektuaren diseinuaren justifikazioa .....	16
3.2.2. Errealitatera eramanda .....	17
3.3. Emaizak .....	18
4. Ondorioak .....	21
5. Erreferentzia bibliografikoak .....	24

### ERANSKINAK

I. Eranskina: Proiektua garatzeko faseak .....	27
II. Eranskina: Ikasketa Zerbitzuaren eta Ikasketa Dialogikoaren arteko konparazioa .....	31
III. Eranskina: Proiektuaren programazio didaktikoa .....	32
IV. Eranskina: Baloreei buruzko galdetegia .....	81
V. Eranskina: Inkestaren emaitzak .....	82

## NOLA HEZI BALOREETAN GIZARTE POSTMODERNOAN

### Ikasketa Zerbitzuan eta Ikasketa Dialogikoan oinarritutako proposamena

Nerea Velasco Valbuena

UPV/EHU

Azken urteotan balore-hezkuntza debate eta berrikuntza kurrikular, pedagogiko eta metodologiko prozesuan sartuta dago, gizartean gertatzen ari diren aldaketetara egokitzen saiatuz. Lan honek balore-hezkuntzari erantzun metodologikoa ematea du helburu. Horretarako, gizarte postmoderno, egungo balore krisia, balore hezkuntzaren garrantzia eta bere inguruko korrante ezberdinak aztertzen ditu. Korrante horietako batean kokatuz, Ikasketa Zerbitzua eta Ikasketa Dialogikoan oinarritutako metodoa proposatzen du. Azkenik, metodoaren balioa egiaztatzen du ikerketa praktikoa baten bidez, hau da, metodoan bertan oinarritutako proiektu bat garatuz.

*Balore hezkuntza, baloreak, postmodernitatea, Ikasketa Zerbitzua,, Ikasketa Dialogikoa*

En los últimos años, la educación en valores se ha visto inmersa en un continuo debate y proceso de renovación curricular, pedagógica y metodológica, tratando de adaptarse a los cambios operantes en la sociedad. El presente trabajo pretende dar una respuesta metodológica a la educación en valores. Para ello, comienza por analizar la sociedad postmoderna, la actual crisis de valores y las diferentes posturas en torno a la educación en valores. Tras posicionarse en una de estas corrientes y presenta una propuesta basada en el Aprendizaje Servicio y el Aprendizaje Dialógico. Finalmente comprueba su idoneidad a través de su implementación práctica.

*Educación en valores, valores, postmodernidad, Aprendizaje Servicio, Aprendizaje Dialógico.*

In the recent years, education in values is facing a continuous debate and curriculum, pedagogic and methodological renovation process, trying to get adapted to the changes happening in the society. This paper tries to give a methodological answer to the education in values. Therefore, it analyses the postmodern society, the nowadays crisis of values and the different positions about the education in values. Choosing one of these positions, it presents a proposal, based in Learning Service and Dialogue Learning. Finally, it demonstrates the suitability of this proposal through its practical development, thus, implementing a project based on it.

*Education in values, values, postmodernity, Service Learning, Dialogue Learning.*

## Sarrera

Azken urteotan postmodernitateak gure ikastetxeetako ateak jo ditu eta bere errealitatera egokitu behar izango duten ikasleak eseri ditu idazmahaietan. Ikasle horiek globalizazioak betetako motxilarekin datoz. Gizarte multikulturalaz, familia eredu anitzaz, teknologia berrien eraginaz eta baloreen ziurgabetasunaz kargatutako motxila.

Irakasleok errealitate horren aurrean gaude, dilemaz eta zalantzaz beterik. Hainbat egoera eta erreformatara moldatu behar izan dugu eta aurkitzen dugu bihurtu garela psikologo, autodidakta, informatikan aditu, soziologo eta balore zaintzaile. Baloreei dagokienez, erronka baten aurrean gaude. Egunetik egunera aldakorragoa eta konplexuagoa den errealitateari eman beharreko erantzunak bilatu beharko ditugu baina balore sendoetan oinarrituz. Hortaz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari buruz hausnartzean galdera bat egin beharko diogu gure buruari: *nola hezi baloreetan gizarte postmodernoa?*

Gure practicum-etan zehar jasotako erantzuna izan da baloreak edozein momentutan irakasten direla. Bat gatoz iritzi horrekin, baina horrek ez du esan nahi planifikaziorik behar ez dutenik. Gainera, irakasle batzuek baloreek etxetik ikasita etorri beharko luketela pentsatzen dute, familien konpromiso ezagatik kexatuz. Beraz, balore hezkuntzaren ardura ia guztia hartu behar badu hezkuntzak, erantzun aproposa emateko beharra gero eta larriagoa da. Azken finean, jazarpen eta hezkuntza ustearen kasuak gero eta aruntagoak dira, eta ez al dago balore eza arazo horien atzean?

Gure prestakuntzak baloreetan hezteko estrategiak jaso beharko lituzke. Hala ere, baloreekin lotuta pedagogia, metodologia eta teoria asko ikasi arren, ez dugu prestakuntza konkreturik jaso, garapen moralaren teoria izan ezik. Curriculumarekin gauza bera gertatzen da. Lanean ikusiko dugun moduan, baloreak jasotzen ditu, baina ildo zehatzik jarraitu gabe. Azkenik, irakasleok premia ikusten al dugu? Erantzuna jakiteko, Marchesik eta Diazek (2007) irakasleen baloreei buruz egindako ikerketaz baliatu gara. Eraitzen arabera, irakasleok kezkatuta gaude baina kezka hori galtzear dago, irakasle gazteon artean baloreetan hezteko premia gero eta txikiagoa delako.

Beraz, lan honetan planteatzen dugun galderari erantzuna emateak ezinbestekoa dirudi. Eta hori izan da gure helburu nagusia: baloreetan hezteko proposamen metodologiko bat

garatzea. Bere balioa frogatzea eta irakasle moduan aritzea ere lortu nahi dugu, bere baitan oinarritutako proiektu bat garatuz eta inplementatuz.

Lanean zehar ikusiko den moduan, egungo gizartea eta balore kontzeptua sakonki ikertu dira. Horrez gain, balore hezkuntza kontzeptualki zein pedagogikoki ikertu da. Hala ere, metodologiarekin ez da gauza bera gertatzen. Autoreek baloreetan hezteko garrantzia azpimarratzen dute eta korrante ezberdinak aurkezten dizkigute, baina gehienek proposamen metodologiko zehatzik finkatu gabe. Gure proposamena, aldiz, baloreetan hezteko metodo zehatz bat garatzean datza. Irakasleok, hainbat esperientzia gara ditzakegu gure ikasleek baloreak bizi ditzaten, baina proposamen eta adibide konkretuak jasotzea lagungarria izan daiteke. Gainera, gure proposamena ez da bakarrik metodologia zehatz batean oinarritzen, baizik eta metodologia ezberdinak konbinatzen ditu, ahalik eta erantzun onena ematen saiatuz.

Erantzun hori emateko, ikertzaile eta irakasle lanak tartekatuta ditugu. Metodoa garatzeko ikerketa teorikoaz baliatu gara, hainbat iturri kontsultatuz eta hainbat adituen teorietan oinarrituz. Bere egokitasuna frogatzeko asmoarekin ikerketa praktikoa garatu dugu. Metodoan oinarritutako proiektu bat diseinatu eta errealitatean garatu dugu ikasleengan izandako eragina guk diseinatutako galdetegi baten bidez neurtuz.

Ikerketa sozial hau bost ataletan banatua dago. Sarrera honen ostean ikerketaren oinarri teorikoak jasoko dira. Ondoren, erabili dugun metodologia azalduko dugu. Laugarren atalean gure proposamena eta bere balio metodologikoa frogatzeko diseinatutako proiektua eta lortutako emaitzak agertuko dira. Amaitzeko, ateratako ondorioak eta etorkizunerako proposamenak aurkituko ditu irakurleak.

## **1. Marko teorikoa**

*Nola hezi baloreetan gizarte postmodernoa?* Galdera hau da lan honetan erantzungo duguna edo, behinik behin, argitzen saiatuko garena. Horretarako, ezinbestekoa da “nola” osagaia behar bezala definitzea. Baina hori egin ahal izateko alde aurretik gainontzeko osagaiak definitu beharko ditugu. Izan ere, galdera osatzen duen hitz bakoitza ongi definitzeak ahalbidetuko digu galdera nagusia modu egoki batean erantzutea.

### 1.1. Gizarte postmodernoa

Gizarte postmodernoa definitzeak lagunduko digu zehazten zein den planteatu dugun galderaren testuingurua, hots, galderaren barruan inplizituki dauden *non* eta *noiz*. Helburua da jakitea nola hezi baloreetan gure gaurko gizartean, etahorretarako gure gizartea deskribatu eta ezagutu behar.

Egungo gizartea, *postmodernitatea* izenez ezagutzen dugu filosofia esparruan, edo Baumanek (2009) proposatu zuen moduan *modernitate likidoa* izenez. Tejadak (2000) dio egungo gizartearen ezaugarri nagusia aldaketen abiadura handia dela. Horrez gain, hezkuntzari eragiten dioten beste ezaugarri batzuk ere deskribatzen ditu:

- Globalizazioa<sup>1</sup>: onurak dakartza, baina baita homogenizazio eta uniformetasunerako tendentzia ere, ongizate estatuaren krisiarekin batera.
- Multikulturalitatea: kultura ezberdinen arteko kontaktuaren aurrean, batzuetan, fundamentalismoa sortzen da, defentsa mekanismo modura.
- Iraultza teknologikoa: Informazio eta Komunikazio Teknologiak lagungarriak dira informazioa lortzeko eta erabiltzeko, baina pasibotasuna, isolamendua, estereotipoak, diskriminazioa areagotzea ere ekar dezake.
- Balore ziurgabetasuna: erreferente ezak edo erreferente legitimoen aniztasunak eraginda, erlatibismo moral batean bizi gara. Testuinguru honetan individualismoa, hedonismoa, eraginkorra izateko obsesioa eta edertasunari kultura dira balore nagusiak.

Postmodernitateak pentsamendu eta moral propioak ditu, Bernalek (2013), Londoñok (2008) eta Baumanek (2009) deskribatzen dituztenak:

- Arrazoiaren eta logikaren kontra. Aurrerapen eta arrazoiarekiko haustura.
- Baloreen erlatibotasuna. Balore unibertsalak baztertzen dira, argudiatuz inposatuak direla eta pertsona bakoitzak bereak garatu behar dituela.

---

<sup>1</sup> Definizio gisa, Tejadak (2000) jasotako Fuentesek sukaldaritzarekin eginiko konparazioa erabil dezakegu "globalizazioa ez da [...] Edam izeneko gazta perfektu, borobil eta gorrixka [...], baizik eta, bere kritikoek aldarrikatzen duten moduan, globalizazioa gazta suitzarra da, zulatutako Gruyère gazta".

- Kritikotasun eta erlatibismo horien ondorioz, gizarte postmodernoa larritasun, zoritxar, antsietate, etsipen eta kontraesan dosi altuekin bizi da.
- Hedonismoa, publizitatea eta komunikabideak baliatuz, balore nagusietariko bat bihurtu da. Edertasun kanonaren arabera estereotipoak aurkezten dira.
- Berrikuntzaren eta gazte izatearen obsesioa. Azken aurrerapen zientifiko eta teknologikoek dute lehentasuna, aurreko tresnak eta jakinduria baztertuz.

## 1.2. Baloreak: zer eta zertarako?

Behin gure testuingurua deskribatuta, gure lanak oinarri duen galderaren beste osagai bat garatu beharrean gara: balorea. Horretarako *zeintzuk diren heziketarako baloreak* aztertuko dugu.

Hasteko, balore kontzeptua definituko dugu. Londoñoren arabera (2008, 1.go-2. or.) balorea “komunitate bateko kideek egindako ekintzen eta iritzi moralen printzipio sortzaile eta erregulatzailerik da; modu batean eta ez bestean aritzea justifikatzen duen idealak [...] munduarekin, besteekin eta geure buruarekin ditugun erlazioen funtsa da [...]”

Autore berak hezkuntzaren sozializazio xedea gogoarazten digu, baloretan hezteko beharrezkoa baita erlatibismoa dela eta. Baina zein baloretan hezi beharko genuke? Irakasle bakoitzak bere ideologiaren arabera, balore batzuk besteak baino askoz gehiago landuko ditu. Ideologia ezberdinak aztertuz, Parrak (2003) lau korrante ezberdintzen ditu:

- Tradizionalistak: unibertsalki onartutako baloreak; egia, justizia, askatasuna eta ontasuna defendatzen dituzte. Haien ustez, balore horietara bueltatzea beharrezkoa da antsietate eta artegatasun postmodernoarekin bukatzeko. Proposamen atemporalak da, hezkuntza ezin delako bere errealitatek urrundu.
- Modernistak: gizakiok gizarteak planteatzen dituen arazoei erantzuteko gai izan behar dugula defendatzen dute, esfortzua edo autonomia aldarrikatuz. Ikuspuntu nahiko zorrotza da eta askotan eremu ekonomikoa besterik ez da kontuan hartzen.
- Subjetibistak edo postmodernistak: Balore absolutuak ez daudela eta bakoitzak bere balore sistema garatu beharko lukeela defendatzen dute. Hortaz, erlatibismo eta

indibidualismoan aritzen dira, baina, ikusi dugun moduan, balore erreferenterik gabeko egoeran bizi gara eta bertan sufrimendua eta antsietatea dira nagusi.

- Baloreen eta historiaren arteko erlazioa: aurrekoak nahastean datza. Balore absolutuak erreferente eta oinarritzotzat hartuko dira, baina gizarte bakoitzera moldatuz eta pertsona bakoitza bere errealitate eta esperientzietara egokituz.

Eta legeak? Zer dio? LOMCE legeak, Ley Orgánica para la Mejora de la Calidad Educativa (2013) eta Eusko Jaurlaritzaren 236/2015 Hezkuntza Dekretuak (2015) baloreak kontutan dituzte haien printzipioetan:

[...] askatasun pertsonala, arduratasuna, herritartasun demokratikoa, solidaritatea, tolerantzia, berdintasuna, errespetua eta justizia sustatzen dituzten eta edozein motatako diskriminazioa gainditzen laguntzen duten baloreak [...] gizon eta emakumeen arteko berdintasun sustatzen duten baloreak. (LOMCE, 2013, 1.go. art., 20-21. or)

[...] giza eskubideetan, justizian, elkartasunean eta inklusioan. [...] bakearen kulturari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzkoak-, kulturen, generoen, eta sexu-orientazioaren aniztasuna eta gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna, elkarrizketa, garapen emozionala, gatazkak modu baketsuan konpontzeko estrategiak, eta hezkuntza-komunitateko kide guztien eskubideak eta betebeharrak. (236/2015 Hezkuntza Dekretua, 2015, 1.go. art., 8. or)

Orduan, Parrak (2003) egin duen moduan, ondoriozta dezakegu gure curriculumak balore demokratikoak jaso dituela. Hala ere, curriculum osoa irakurtzerakoan, balore batzuk besteak baino askoz gehiago aipatzen direla ikusten dugu; adibidez, autonomia, aldaketara moldatzeko gaitasuna edo izaera ekintzailea.

### 1.3. Heztearen kontzeptua

Argitu beharreko hurrengo hitza *heztea* izango da. Bernaleren (2013, 90.or.) arabera “persona bat heztea fakultate intelektualen, fisikoen, moralen eta sentsitiboaren garapenari forma ematea da”. Delors (1996) urrunago doa eta hezkuntza bera baloretzat hartzen du. Bere ustez hezkuntza demokrazia ziurtatzeko balore nagusia da. Parrak (2003) ideia bera defendatzen du, hots, heztea dela aldaketaren motorra eta demokrazia ziurtatzeko tresna.

Beraz, hezkuntza sistema osatzen dugunok gure eginkizuna birplanteatu beharko genuke geure buruari galdetuz *zer naiz ni?*. Erantzuna *irakaslea* bada, Prietok (2008) eta Hoyosek eta Martinezek (2004) dioten moduan irakasle funtzio tradizionalan geratuko gara, hau



da, irakaslea transmisoretzat ikusiko dugu. Aldiz, erantzuna *hezitzailea* bada, ikasleen laguntzaileak izango ginateke eta gizartea aldatzea litzateke gure asmoa. Beraz, utopikoa iruditzen arren, gure jokaerak nahiko anti-postmodernoa izan beharko luke. Hau da, errealitatearen aurrean frustrazio eta pasibotasunean jausi beharrean, eragile sozial gisa dugun papera aldarrikatu behar dugu; bestela, ez gara gai izango baloreetan hezteko.

#### **1.4. Nola hezi baloreetan**

Gure galdearen faktore guztiak argitu ondoren, galdegai nagusia erantzun dezakegu: *nola*. Horretarako, hurrengo lerroetan balore hezkuntzari buruzko errebisio historikoa, pedagogikoa eta metodologikoa egingo dira.

##### **1.4.1. Ikuspegi historikoa**

Parrak (2003) azaltzen digun moduan, balore hezkuntza aldatu egin da historikoki. Hezkuntza sistema arautu zenean, hau da, XIX. mendearen amaieran, eskolak baloreak kontrolatzen eta transmititzen zituen, batez ere erlijioaz baliatuz. Denboraren poderioz, baloreak etxeko kontu bihurtu ziren eta eskolaren eginkizuna gizartearen behar ekonomiko eta laboraletara prestatzea zen.

Pentsamendu hori nagusitu zen 70. hamarkada arte. Baloreak errespetatzeko zailtasunak eta gatazkakortasun soziala ikusita, baloreetan hezteko premia ikusten hasi zen. Estatu Batuetan eta Alemanian hasita, baloreak “buelatu” ziren eskolara modu esplizituan, hots, baloreetan hezteko programa zehatzak antolatu ziren. Diziplinartekotasun irizpideak jarraituz, baloreak proposatu ziren curriculumaren arlo guztietan, baina errealitatean Gizarte Zientzietan kontzentratu ziren.

Espanian, 1990era arte, LOGSE legea onartu zenean, balore hezkuntza ez zen arautu. Hortik aurrera, curriculumak balore hezkuntza zehazten du bi eduki motaren bidez:

- Jarrerazko edukiak: baloreak eta jarrerak barne hartzen dituzte, eta prozedurazkoekin eta kontzeptualekin eduki kurrikularak osatzen dituzte, LOMCEk berreskuratutakoak.
- Zeharkako gaiak: ezinbestekotzat hartzen dira eta diziplinartekoak dira. “Moral hezkuntza, bakerako hezkuntza, osasunerako hezkuntza, sexu arteko

berdintasunerako hezkuntza, ingurumenerako hezkuntza, hezkuntza sexuala, kontsumitzailearen hezkuntza eta bideko hezkuntza dira” (Parra, 2003, 74. or.).

### 1.4.2. Ikuspegi pedagogikoa

Pedagogikoki, bi korrante aurki ditzakegu baloreen hezkuntzaren eremuan. Ayusteren eta Trillaren (2003) arabera honako pedagogia hauek ezberdin ditzakegu:

- Pedagogia kontserbadoreak: hezkuntza gizarteratze eragileztat ikusten dute eta bere erreproduzio funtzioa hobetu nahi dute. Horien artean daude pedagogia faxistak eta nazional-katolikoak, eskola tradizionala eta pedagogia konduktistak. Euren artean ezberdintasun nabariak izanda ere, ideologia tradizionala dute oinarri.
- Pedagogia transformatzaileak: ikuspegi kritikotik sortuko dira eta hezkuntza sistema gizartea aldatzeko aukeratzat hartzen dute. Pedagogiko asko aurki ditzakegu: Freire, Dewey, etab., sozio-konstruktibismoren barnean sar ditzakegunak. Bakoitza bere ildo nagusitik ezberdindu arren, guztiek azpimarratzen dute esperimendazioa, kontaktu soziala eta komunikazioaren garrantzia, eta balore “sozialagoak” aldarrikatzen dituzte.

Azken pedagogia horien artean garapenaren teoria psikologikoak ere aurki ditzakegu. Baloreei dagokionez, bi teoria izan dira eta oraindik dira nagusi, Fierrok (2004) dioenaren arabera. Batetik, Piageten garapen kognitibo eta kontzientzia moralaren teoria ebolutiboa. Bestetik, teoria hori jarraituz, Kohlbergen garapen moralaren teoria. Fierroren (2004) eta Lopezen (2005) arabera, teoriak garrantzi handikoak izanik, hezkuntza sistemek literalki jarraitu dituzte testuinguruaren eta ikasketaren eragina baztertuz.

### 1.4.3. Ikuspegi metodologikoa

Irakaslearen ideologiaren arabera, baita arestian aipatutako hezitzaile/irakasle paperaren arabera, ezberdinak izango dira irakasleok hautatutako baloreak eta erabilitako metodologia. Lopezek (2005) lau perspektiba metodologiko aurkezten dizkigu:

- Baloreen irakaskuntza: tradizionalistek aldarrikatua. Haien ustez irakatsi behar ditugun baloreak unibertsalak dira. Metodologia tradizionala erabiltzen dute; irakaslea transmisorea da, eta nahiz eta baliabide eta metodo berritzaileak erabili, helburua ez da debatea sortzea, baizik eta aurrez hautatako baloreak transmititzea.
- Baloreen argitzapena: baloreak kulturaren eta pertsonaren arabera ezberdinak diren ikuspegitik, hots, erlatibistotik eta postmodernistotik dator. Aurreko teknikak erabiltzen dira baina helburu guztiz ezberdinarekin. Hausnarketa eta dialogoa sustatu nahi dira ikasle bakoitzak bere balore propioak gara ditzan. Irakaslea moderatzailea besterik ez da eta ez du bere iritzia emango.
- Arrazonamendu morala: Kohlbergen teoria jarraituz, helburua ez da baloreak irakastea baizik eta moral autonomoa garatzea. Planteamendu modernista da gizakia animalia arrazionaltzat hartzen duelako. Ondorioz bere juizio morala garatuko da eta metodologiaren muina prozesuari laguntzea da. Irakaslea moderatzaile eta gidari bihurtzen da, eta dilema morala da tresna nagusia garapen moralaren hurrengo estadiora heltzen laguntzeko.
- Metakognizioa: ikasleak esperientzia irabazi eta bere testuinguruaren azterketa egin behar du bere sentimenduak eta baloreak garatzeko. Garatutako baloreak bereak izango dira, baina gizartearekin lotuta ere egongo dira, hortaz, *baloreak-historia* erlazioaren ikuspegitik jardungo dugu. Irakasleok esperientzi horiek bizitzeko aukera ziurtatu behar dugu, eta laguntzaile eta zuzendari gisa garatu gure lana.

Cerrillok (2003) azken ideia hori defendatzen du eta bat gatoz berarekin. Irakasleok, postmodernitatean bizi gara eta ondorioz bere “antibaloreak” irakats ditzakegu. Batetik, hezkuntza eta gizartearen egoera ikusita, jarrera postmodernoa gara dezakegu, hau da, egoeraren aurrean pesimismoan eta pasibotasunean jausiz. Bestetik, “erreproduktzio logikak” jarrai ditzakegu gizarteak bultzatzen dituen baloreak transmitituz.

Horiek saihesteko, irakasleok urrunago joan beharko genuke geure buruak aldaketaren eragiletzat ikusiz. Hau da, gure gizartea eta errealitatea direnak dira, baina ezin gara postmodernitatean jausi, eta ilusio eta konpromisotik abiatu behar dugu balore hezkuntza aldaketa sozialaren gakoa delako. Horregatik, irakasleok hiru pausu eman beharko genituzke benetako balore-hezkuntza garatzeko:

1. Hausnarketa: gure baloreei buruz hausnartu behar dugu. Sinesten ez dena ezin da irakatsi, beraz, gure baloreak finkatu behar ditugu.
2. Hautaketa: gure baloreen artean hezteko baliogarriak direnak hautatu behar ditugu. Hau da, zein baloretan hezi nahi dugun erabaki beharko dugu.
3. Metodoa: baloretan hezteko ez dago metodologia bakar bat, metodologia eta teknika ezberdinak erabil ditzakegu. Horregatik, metodo bat ala bestea garatuko dugu aukeratutako baloreen arabera. Metodoak bi baldintza bete behar ditu: batetik, originaltasuna, konpromisoa eta hausnarketa zutabetzat hartzea; eta bestetik, esperientzian oinarritzea, baloreak ikasi ahal izateko bizi egin behar direlako.

Beraz, benetako balore hezkuntza lortzeko ikasleak baloreak bizi behar ditu eta horretarako euren balioa eta beharra ikusi behar ditu. Horretarako, estrategia ezberdinak erabil ditzakegu, baina gure proposamenak baldintza batzuk bete beharko lituzke (Parra, 2003):

- Baloreak: oinarrizko, testuinguruko eta ikasleen baloreak erlazionatu behar dira.
- Gelaren giroa: komunikazioa, kooperazioa eta partehartzea sustatu behar dira.
- Irakaslearen papera: laguntzaile eta koordinatzaile bihurtuko da. Baloreak sentituko ditu eta aukeratutako metodologia menperatu behar du. Jarrera positiboa izango du, bere funtzio soziala aldaketaren eragiletzat hartuz.
- Gizartearekin lotura: batetik, baloreak errealitatean bizitzeko eta, bestetik, baloretan hezteko gizarte osoaren kontua delako.
- Espazio eta denbora: baloreak edozein momentu eta lekutan garatuko dira.
- Didaktikoki: diziplinartekotasunean, motibazioan eta esperientzian oinarrituko da.

## 2. Metodologia

Gure helburu nagusia baloretan hezteko proposamen berritzaile eta baliogarri bat garatzea da. Helburu nagusi hori lortzeko bi azpihelburu finkatu ditugu: proposamenaren balioa frogatzea eta irakasle gisa garatzea.

Helburu hori lortzeko ikerketa aplikatua garatu dugu, halako ikerketak arazoa ikusarazteko eta horri irtenbide bat bilatzeko erabil daitezkeelako. Ikerketa hori mistoa izan da; ikerketa teoriko kualitatiboa eta ikerketa praktiko kuantitatiboa. Horretarako, Juaristik (2003) gizarte zientzien esparruan ikerketa zientifikoak garatzeko proposatutako pausoak jarraitu ditugu.

Lehenengo fasean, ikerketa teorikoa garatu dugu. Gaiari buruz aurretik idatzitako artikulua, liburuak eta legeak aztertu ditugu EHU-ko *Millenium*, *Google Scholar* eta *Dialnet* bilatzaileak erabiliz. Lehenbizi, postmodernitate eta balore kontzeptuak ikertu ditugu, eta jarraian baloreetan hezteko aukera pedagogiko eta metodologiko ezberdinak aztertu ditugu. Ikerketa teoriko horri esker, gaiari buruzko ezagutza handitzeaz gain, gure lanaren berezitasunak ezagutu eta metodoaren diseinua finkatu ditugu.

Behin gaiari buruzko literatura irakurrita, gure proposamena: baloreetan hezteko metodo bat diseinatu dugu. Horretarako, honako hipotesi honetan oinarritu gara: *“Ikasketa Zerbitzuan eta Ikasketa Dialogikoan oinarritutako metodoa baliogarria da baloreetan hezteko”*.

Hipotesi hori baieztatzeko edo ezeztatzeko eta, ondorioz, gure helburuak lortzeko, ikerketa praktikoa garatu dugu. Metodoaren eragina frogatu nahi dugunez, metodoan oinarritutako proiektua aukeratu dugu tresna gisa, Juaristik (2003) saioa deitzen duena. Proiektua diseinatzeko I-S proiektua garatzeko pausoak jarraitu ditugu (Puig et al., 2006 eta Zerbikas Fundazioa, 2008b). Prozesu guztia I. eranskinean ikus daiteke.

Proiektuaren eragina aztertzeko, ikasleen baloreak alderatu ditugu esperientzia jaso baino lehen eta ondoren. Horretarako, inkesta bat egin diegu parte-hartzaileei baloreak garatu dituzten jakiteko asmoarekin. Inkesta galdetegi ezberdinen bidez egin da. Galdetegi horiek galdera itxiez (dikotomikokoak eta erantzun anitzekoak) eta galdera irekiez osatuta egon dira, eta *Google Form* programaren bidez egin dira.

Lagina 48 ikasletakoa izan da, Avellaneda Ikastetxeko (Bizkaia) seigarren mailako ikasleak. Proiektua garatzeko muga garrantzitsuetako bat denbora izanik, maila horretako ikasleekin aritzea erabaki dugu, adin horietako ikasleen garapen moral eta soziala kontutan hartuz.

### 3. Lanaren garapena

Lan honen helburu nagusia da baloreetan hezteko proposamen zehatz bat ematea. Horretarako, metodo bat garatu dugu arestian ikusi ditugun Cerrilloren (2003) eta Parraren (2003) irizpideak jarraituz. Metodoaren balioa frogatu nahi dugu eta horretarako metodo horretan oinarritutako proiektu zehatz bat diseinatu, inplementatu eta ebaluatu dugu.

#### 3.1. Baloreetan hezteko metodoa

Gure ustez, ikasleek baloreak garatzeko, balore horiek haien testuinguruan bizi behar dituzte. Horregatik, gure metodoa *zerbitzu soziala garatzean* datza. Zerbitzua, ikasleen ikasketa prozesua gertatzen den bitartean garatuko da. Hau da, finkatutako edukiak lantzeaz gain, zerbitzu soziala garatuko dute haien testuinguruan dagoen arazo bat konpontzeko asmoz. Horrela, ikasketa esanguratsu bihurtuko da, eta enpatia, konpromisoa, lankidetzeta, solidaritatea eta tankera horretako baloreak garatuko dira.

Zerbitzuari esker ikasleek errealitatearekin kontaktua izango dute. Baina, gure ustez, erlazio horrek bi norabide izan behar ditu, hots, ikasleak errealitatean murgiltzea baina errealitatea ere haien ikasketa prozesuan txertatzea. Horrela, ikasleek ikusiko dute beraiek garatzea nahi ditugun baloreak gizarteak ere konpartitzen dituela. Horretarako, zerbitzua garatzeko prozesuan boluntario batzuen presentziari ezinbestekoa deritzogu.

Ondorioz, gure metodoaren ezaugarri nagusiak hurrengoak izango dira:

- Proiektu soziala eta ikasketa prozesua aldi berean garatzea.
- Errealitatearekin lotutako esperientzia.
- Ikasleak dira protagonistak, irakasleek eta boluntarioek zuzenduta eta lagunduta.
- Ikerketan eta hausnarketan oinarrituta.
- Multi-ebaluazioa: autoebaluazioa, koebaluazioa eta heteroebaluazioa.

Hortaz, baloreetan hezteko proposatzen dugun metodoa bi metodologiaren arteko konbinazioa izango da: Ikasketa Zerbitzua, aurrerantzean I-S, eta Ikasketa Dialogikoa. Metodoa beste metodologia eta teknika batzuekin uztar daiteke, hori bai, esperientzia, ikerketa, hausnarketa eta ikasleak ardatz hartuta.

### 3.1.1. Metodologiaren oinarriak

- **Ikasketa Zerbitzua**

“Ikasketa eta zerbitzua hezkuntza-proposamena da, eta ikasketa zein erkidegoarentzako zerbitzua bateratzen ditu ondo egituratutako proiektu bakar batean. Bertan, hain zuzen ere, parte-hartzaileek ikasi egiten dute eta, aldi berean, inguruneko benetako premietan lan egiten dute, hobetzeko asmoz” (Puig et al., 2006, 20. orr.)

Tapiak (2001), Puig-ek et al-ek (2006) eta Battlek (2013) esperientzian, hausnarketan eta elkarrekikotasunean oinarritutako pedagogiatzat hartzen dute eta Zerbikas Fundazioak (2008a), Euskadin I-S sustatzen duen zentroa, asmo pedagogikoa eta asmo solidarioa uztartzen direla azaltzen digu. Beraz, I-S esperientzia izateko, ikasketak eta zerbitzuak pisu bera izan behar dute eta biak guztiz planifikatuta egon behar dira, bakoitza bere helburuekin. Izan ere, bakoitzak banan-banan dituen eraginak biziagotzen dira eta proiektua garatzean errealitate berria sortzen dute.

- **Ikasketa Dialogikoa**

“Ikasketa dialogikoa berdinen artean sortutako interakzioan sortzen da, hau da, berdinen arteko eta adostasun batera heltzeko asmoarekin eginiko dialogoa da” (Valls, 2000, 115. or.).

Ikasketa dialogikoa Ikas Komunitateen oinarri metodologikoa da. Ikas Komunitatea eskola eta hezkuntza birdefinitzeko proiektu eraldatzailea da. Bere helburu nagusia eskola porrotari aurre egitea da. Horretarako, komunitate osoa (irakasleak, familiak eta boluntarioak) agente sozial bihurtzen da eta solidaritatean eta kooperazioan oinarritutako hezkuntza integralean hartzen du parte. (Valls, 2000, Flecha eta Puigvert, 2002).

Metodologikoki, Vallsek (2000) azaltzen digun moduan, talde interaktiboak sortzen dira, eta horrela, eskolatik kanpoko pertsonak sartzen dira laguntzaile gisa. Horri esker, errealitatearekin kontaktua lortzen da, pertsona oso ezberdinekin enpatia sortuz eta ikasketa esanguratsuagoa lortuz.

Nahiz eta ikuspegi pedagogiko ezberdinetik sortu, bi metodologiek antzekotasun nabariak dituzte II. eranskinean bakoitzaren ezaugarri nagusiak ikus daitezke.

### 3.1.2. Metodoaren justifikazioa

Ikusi dugun moduan, metodologia bakoitzak bere helburu eta ezaugarri propioak ditu. Hala eta guztiz ere, Alvarezek eta Siliok (2015) defendatzen duten moduan, guztiz osagarriak dira eta bata bestearekin garatu ahal dira. Bi metodologiek konpartitutako ezaugarri batzuk gure metodoaren aukera justifikatzen dute:

- Esperientzian, diziplinartekotasunean, kooperazioan eta komunikazioan oinarritzen dira, ikasleen gaitasunak, motibazioa eta, ondorioz, haien ikasteko grina handituz.
- Pedagogia erreflexiboak dira, hausnarketa erabiliz ezagutza sortzeko tresna gisa.
- Asmo pedagogikoan eta asmo solidarioan oinarritzen dira, ikasleak gizabanako kritiko, konprometitu eta aktibo moduan garatuz.
- Hezkuntzaren eta gizartearen aldaketa lortu nahi dute, konpromiso soziala garatuz.
- Solidaritate, konpromiso, empatia, kooperazioa, ardura, esfortzua, errespetua eta pertsonak eta gauzak balioesteko baloreak sustatzen dituzte.

Ikus daitekeen moduan, bi proposamen pedagogikoak baliogarriak dira baloreetan hezteko. Hala ere, gure metodoa biak konbinatzean datza, elkar aberasten duten proiektuak baitira. Bien konbinazioa medio, solidaritatea eta konpromiso soziala bi norabidetan mugituko dira; ikastetxetik komunitatera eta komunitatetik ikastetxera. Ondorioz, baloreak sustatzea guztion konpromiso bihurtuko da (Alvarez eta Silio, 2015).

### 3.2. Metodoan oinarritutako proiektua

Aipatutako metodoan oinarritutako proiektu bat diseinatu dugu bi helburu lortzeko asmoarekin. Alde batetik, metodoaren balioa frogatzea, eta, beste aldetik batetik, halako proiektua garatzeko prozesu guztia ezagutzea, hau da, irakasle gisa aritzea. Irakurleak adibidetzat hartu behar du, halako proiektuak edozein esparrutan, edozein mailatan eta edozein helbururekin gara daitezke eta. Hori bai, proiektua ondo garatzeko, Puigek eta al-ek (2006) eta Zerbikasek (2008) proposatutako prozesua jarraitu behar da; gure kasuan, prozesu hori I. eranskinean ikus daiteke.



Hurrengo taulan proiektuaren ezaugarri nagusiak ikus daitezke, bere programazio didaktikoa III. eranskinean ikus daiteke:

<b>Izenburua</b>	<b>Jolasa, musika eta artea: edonon eta edonoiz</b>
<b>Sintesia</b>	Ikasleek dinamizazio saio batzuk egingo dituzte zahar-etxe batean. Taldeka antzeztuko dituzte jolas, dantza eta kanta ezberdinak, han bizi diren adinekoei laguntzeko. Ikasleek haien curriculumaren gai teoriko batzuk ikertu eta landuko dituzte eta ikasitakoa abiapuntutzat hartuz, emanaldiari forma emango diote. Prozesuan zehar herriko beste adineko pertsonen laguntza jasoko dute.
<b>Esparrua</b>	Belaunaldien arteko trukea (Zerbikas, 2008a).
<b>Zerbitzua</b>	Adineko pertsonen laguntza ematea: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zahar-etxean dauden adineko pertsonen: dinamizazio saioa.</li> <li>• Boluntarioei: baliotsu sentiaraztea proiektuan parte-hartuz.</li> </ul>
<b>Ikasketa</b>	Jolasak, musika eta artea: gizartearen fenomenoak.
<b>Ikastetxea</b>	Avellaneda Ikastetxea (Sodupe, Bizkaia)
<b>Protagonistak</b>	6. mailako bi taldeetako 48 ikasleak: 32 mutil eta 16 neska.
<b>Beste parte-hartzaileak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Onuradunak: zahar-etxeke eta boluntario gisa arituko diren adineko pertsonak.</li> <li>• Erakundea: Geriatrico Biotzak, S.A. (Gueñes, Bizkaia).</li> <li>• Irakasleak: 6. mailako tutoreak eta arteko, musikako eta heziketa fisikoko irakasleak.</li> <li>• Proiektuaren arduraduna: Nerea Velasco Valbuena</li> </ul>

*1. taula. Proiektuaren oinarritzko ezaugarriak.*

### 3.2.1. Proiektuaren diseinuaren justifikazioa

Lau irizpide hartu ditugu kontuan proiektuaren ikasketa eta zerbitzua finkatzeko: gure metodoa frogatzeko helburua, ikastetxeak jarritako baldintzak, Lehen Hezkuntzako curriculum, eta ikasleen kopurua, ezaugarriak eta motibazioa.

Aldiz, proiektuaren esparrua (belaunaldien arteko trukea) hautaketa pertsonala izan da. Neure kabuz bizi arte, aitona-amonekin bizi izanak egun dudan izaeran eragin handia

izan du. Horrek eraman nau zahartzaroaren egungo egoera hurbiletik bizitzera. Gizarte postmodernoa, belaunaldien arteko harremana gero eta txikiagoa da eta zahartzaroak ospe-galtze nabarmena sufritu du. Ondorioz, adineko pertsona askok bakardadea sufritzen dute eta besteok galtzen ari gara haien jakinduria, esperientzia eta aholkuak, gure balore sistemari zuzenean eraginez (Gutierrez, 2012).

Kezka pertsonaletik harago, esku artean dugun gaiarentzat duen balioa teorikoki frogatu dugu. Gutierrezek (2012) dio agureek eta umeek antzeko beharrak dituztela:

NAGUSIEN BEHARRAK	UMEEN BEHARRAK
Haztea eta hezteia.	Babestua eta zaindua izatea.
Irakastea.	Irakatsia izatea.
Ohiturak transmititzea.	Identitate kulturala izatea.
Baloreak komunikatzea.	Balore eredu positiboak izatea.
Ondarea uztea.	Iraganari buruz ikastea, aurreko belaunaldiekin kontaktua izatea.

2. taula. Umeen eta adineko pertsonen beharrak

Modu berean, halako proiektuen onurak asko ikertu dira. Sanchezek, Kaplanek eta Saezek (2010), Gutierrezek (2012) edo Ede Fundazioaren Ezagutza Zentruak (2015) onura horiek jasotzen dituzte, gure helburu berarekin: baloreak bizitzeko aukera ematea, hona hauekin lotura estuan:

- Adineko pertsonen buruzko estereotipoak eta edadismoa<sup>2</sup> apurtzea.
- Laguntasuna, maitasuna, solidaritatea, enpatia, edo ardura soziala sustatzea.

### 3.2.2. Errealitatera eramanda

Arestian aipatu dugun moduan, proiektua Avellaneda Ikastetxean garatu da gure hirugarren praktikumean zehar. Nahiz eta hasieratik ikastetxearekin kontaktuan egon eta proiektuaren ezaugarri nagusiak adostu, proiektua garatzeko momentuan gauza asko

---

<sup>2</sup> Adin diskriminazioa

aldatu dira, proiektuaren helburuari eta balioari eraginez. Hurrengo taulan aldaketa esanguratsuenak jaso dira, bakoitza aurrekoaren ondorioa izanik:

ESPARRUA	ADOSTUTAKOA	ALDAKETA
Irakasleen konpromisoa	Proiektuan kolaboratzea.	Ez dute ia proiektuan parte hartu. Beraz, guk geuk zuzendu dugu proiektu guztia.
Taldeak	Talde heterogeneoak sortzea.	Gela batean ikasleek beraiek osatu zituzten taldeak gaiaren arabera. Ondorioz, talde oso desorekatuak sortu ziren eta batzuetan lana eta giroa ez dira egokiak izan.
Talde interaktiboak	Laguntzaileak bilatzea.	Proiektua hasi zenean laguntzaile gabe aurkitu ginen. Orduan guk bilatzeko erabakia hartu genuen, baina arrakasta gutxirekin.
Ordutegia	455 ordu.	220 orduko ordutegi aldakorra.
Metodologia	Ikasketa Dialogikoa	Ordutegiaren etengabeko aldaketek eragin zuten laguntzailerik ez etortzea, eta ezin izan genuen metodologia garatu.
Zerbitzua	3 saio	Saio bakarra egin ahal izan zen, bere dinamizazio onurak murriztuz.
Ebaluazioa	Irakasleen kolaborazioa.	Ez dute ebaluaketarik egin eta ikasleen ebaluazioa ez dute ezertarako erabili.

3. taula. Proiektuaren aldaketak

### 3.3. Emaitzak

Proiektuaren eragina frogatzeko, eta beraz baita metodoaren balioa ere, inkesta bat egin genien parte-hartzaileei, baloreak garatu dituzten jakiteko asmoarekin. Inkesta (IV. eranskinean ikus daiteke) proiektua hasi baino lehen eta proiektua amaitu ondoren egin zen *Google Form* programaren bidez. Lortutako emaitzak konparatu dira. Kasu batzuetan emaitzak zuzenean konparatu ahal izan ditugu erantzunak itxiak zirelako. Beste kasuetan, aldiz, erantzunak irekiak zirenez estatistikoki landu behar izan ditugu.

Ikertu diren baloreak hurrengo taulan jasotzen dira:


• Maitasuna	• Kooperazioa
• Ontasuna	• Esfortzua
• Solidaritatea	• Adineko pertsonenganako errespetua
• Aniztasuna	• Ondare kulturala balioestea

4. taula. Ikertu egin diren baloreak


Hurrengo lerroetan lortutako emaitza nabarmenenak azaltzen ditugu grafikoez baliatuz. Hala ere, lortutako erantzun eta grafiko guztiak V. eranskinean daude.

• **Taldearen balore sistema**

Umeen ustez garrantzitsuenak diren baloreak zeintzuk diren jakiteko “Aukeratu garrantzitsuenak iruditzen zaizkizun 3 ezaugarri” galdera itxia egin genien. Irudietan ikus daitekeen moduan, proiektua egin aurretik laguntasuna, lana, adimena eta zintzotasuna ziren aukeratuenak. Proiektua amaitu ondoren, aurreko baloreek garrantzitsuenak izaten jarraitu dute baina aipagarria da solidaritatea % 12tik-%43ra igo dela.



1.grafikoa. Erantzunak proiektua garatu baino lehen.




2. grafikoa. Erantzunak proiektua amaitu ondoren.


Modu berean, ume bakoitzak bere baloretzat identifikatzen dituen baloreak ezagutzeko asmoz, galdera ireki batzuk egin genizkien. Galdetu genien zeintzuk diren euren burua ondoen deskribatzen duten animalia eta kolorea, eta zein den euren bertute nagusia.

Animalien kasuan emaitza nagusiak izan ziren txakurra (laguntasunarekin identifikatzen dena), indarra eta boterearekin uztartzen diren animaliak (tigrea, lehoia, etab.), eta adimenarekin lotzen direnak (izurdea edo zaldia), aldaketarik jaso gabe. Kolore eta bertutearen kasuetan aldiz, aldaketa nabariak egon dira. (Chevalier eta Gheerbrant, 1988).

Koloreei dagokienez, berdea, itxaropenarekin lotzen dena bigarren aukera bihurtu da (Pastoureau eta Simmonet, 2006).




3. grafikoa. Hasierako erantzunak




4. grafikoa. Ondorengo emaitzak

Bertutearen aldaketa ere aipagarria da. Grafikoetan ikus daitekeen moduan, proiektua garatu baino lehen laguntasuna zen aukera nagusia, baina esperientzia bizi ondoren solidaritatea nagusitu zen.



5. grafikoa. Hasierako emaitzak



6. Grafikoa. Ondorengo emaitzak

- **Baloreetan eragina**

Arestian aipatutako balore guztiei buruzko galdera itxiak egin genizkien ikasleei. “Adineko pertsonenganako errespetua” kasuan izan ezik, kasu guztietan balore bakoitzeko galdera bat egin zen.

- Ontasuna, solidaritatea, esfortsua, kooperazioa, aniztasuna eta maitasuna baloreen kasuan emaitzak positiboak izan dira, batez ere azken bi kasuetan.
- “Adineko pertsonenganako errespetua” kasuan bi baieztapen ezberdin egin genizkien umeei: “Adineko pertsonak gauza asko irakatsi ahal dizkigute” eta “Adineko pertsonen istorioek aspertzen naute”. Lehenengo baieztapenean jasotako erantzunak berdinak izan dira. Bigarrenean pixka bat okerragoak (%14-%22), baina erantzunak zahar-etxean umeei bizi izan zuten gertakari batek erangida daude. Beraz, emaitzen arabera esan dezakegu proiektuak ez duela eragin handirik izan eta haien figura antzera ikusten dutela umeei.
- Ondare kulturalari dagokionez emaitzak txarrak izan dira. “Antzinako jolasak, musika eta artea egungoak baino okerragoak iruditzen zaizkit” izan zen egin genien baieztapena eta baietz erantzun zutenen kopurua %43tik %50ra igo zen. Emaitzak ez gaitu harritu proiektuan zehar entzun diegulako antzinako musika edo artea entzuten eta ikusten zuten lehen aldia zela.

#### 4. Ondorioak

Lan honen hasieran postmodernitateak eskolako atea jo duela esan dugu. Gure ikerketa burutu ondoren nahiko ondo azal dezakegu eskolaren erantzuna zein den baloreei dagokienez. Zer egiten du eskolak? Ba, atea erdi irekita utzi. Atea ez dago itxita baloreetan hezten saiatzen garelako, baina guztiz irekita ez dugu aurkitzen.

Eskola, hezkuntza sistematzat hartuta, gizartearen azpi-sistema da, hortaz, azken horren eragina jasotzen du. Lanean zehar azaldu dugun moduan postmodernitatearen ezaugarri bat balore ziurgabetasuna edo balore krisia da, eskolan islatzen dena, hain zuzen. Azken finean, sistema osatzen dugunok, zuzendariak, legegileak, irakasleak, etab. izateaz gain, gizabanakoak gara, gizabanako postmodernoak.

Irakaslea atezaintzat hartzen badugu bi atezain mota aurki ditzakegu. Batetik, atezain postmoderno, atea guztiz irekitzeko arazoak eta oztopoak ikusiko dituen, errua botaz curriculam-ari, gizarte eraginari, familien konpromiso faltari edo prestakuntza ezari. Bestetik, atezain anti-postmoderno, egoera ikusita, irekitzeko estrategiak bilatuko dituen. Hots, prestakuntza eta laguntzarik ez jaso arren, curriculum-a jarraitzea behartuta egon arren eta beste gizarteratze eragileak “aurka” izan arren, zenbait ekintza aurrera eramango du.

Ikerketa garatzeko gure ikuspuntua azken hau izan da. Baloreetan hezteko premia, horren inguruko artegatasuna eta prestakuntza eta irizpide eza ikusita, atea irekitzeko estrategia bilatu nahi izan dugu. Hau da, “nola hezi baloreetan gizarte postmodernoa” galderari erantzun metodologiko baliagarria ematea izan da gure helburu nagusia.

Erantzuna, hots, ikerketa, maila teorikoan gera zitekeen, adituen teorietan oinarritutako metodoa planteatuz. Hala ere, beste bi azpi helburu betetzeko asmoarekin metodoa errealitatera eraman dugu. Batetik, baliagarria dela frogatzeko eta adibide zehatz bat aurkezteko asmoarekin. Bestetik, etorkizunean irakasle gisa arituko gara eta horregatik ikerketa irakasle moduan garatu nahi izan dugu. Hau da, proiektua diseinatzean, garatzean eta ebaluatzean irakasle bihurtu gara eta, gure ustez, horrek irakasle moduan gure prestakuntza eta gaitasunak aberastu ditu.

Maila teorikoan, gure metodoa baliagarria dela ondoriozta dezakegu adituek azpimarratzen dituzten irizpide guztiak barneratzen dituelako. Hausnarketa eta hautaketatik sortu da, eta esperientzian, ikasleen protagonismoan, kooperazioan, komunitatearekin harremanetan eta diziplinartekotasunean oinarritzen da.

Maila praktikoan, aldiz, ezin dugu ondorio bera atera. Lanean azaldu dugun moduan, zailtasun nabariak izan ditugu proiektua garatzeko eta horrek bere emaitzak baldintzatu

ditu. Batetik, proiektua behin eta berriro moldatu behar izan dugu bere luzapena, antolaketa eta ebaluazioa aldatuz. Bestetik, ez ditu jaso halako proiektuek eskatzen dituzten irakasleen arteko komunikazioa eta koordinazioa, ezta ikastetxearen babes eta sustapena ere. Eta azkenik, eta larriena, metodoaren oinarri metodologiko bat ezin izan dugu inplementatu, bere muina guztiz aldatuz. Beraz, nahiz eta proiektua ondo pentsatu eta diseinatu, ezin izan dugu guztiz inplementatu. Horri egozten diogu emaitza nahiko anibalenteak lortu izana, edo emaitza sendagoak ez lortu izanda. Hala eta guztiz ere, ikusi dugun moduan umeei balore batzuk garatu dituzte, hortaz, seinaleak daude metodoa baliagarria dela eta baldintza egokiagoetan berriro garatzera animatzen gaituzte.

Bestalde, oztopo izateaz gain, zailtasun horiek ikerketa aberastu dute. Beraiei esker, errealitatean gure metodoak eskatzen dituen baldintzak ikusi ditugu. Lehenbizi, parte-hartzen duten irakasleen sinesmena, konpromisoa, koordinazioa eta komunikazioa ezinbestekoak dira. Modu berean, ikastetxeak ere metodoaren onurak sinetsi eta esfortzuak egin behar ditu martxan jartzeko eta komunikatzeko.

Azkenik, ikasleei halako proiektuak garatzea gustatzen zaiela frogatu dugu. Horrela jakinarazi digute proiektuaren ebaluazioan. Pozik, motibatuak eta baliotsuak sentitu dira eta etorkizunean beste esperientzia batzuetan parte hartzea gustatuko litzaieke. Dena dela, baldintzek ahalbidetzekotan, haien iritzia kontuan hartzea egokiagoa da onura horiek guztiak handitzeko. Beraz, baloreak sustatzeaz gain, ondoriozta dezakegu metodoak esanguratsu eta ahaztezin bihurtzen duela ikasketa.

Etorkizunari begira, gai honetan sakontzeko beharra ikusten dugu; metodoaren corpusa handituz, kolaboratzaile eta eremu ezberdinak probatuz eta beste metodologia batzuekin konbinatuz. Lan hau lehendabiziko pausoa izan da, baina ondorengo lanetan interesgarria litzateke ikasleek baloreak garatzeko zein aldagaiek eragiten duten jakitea, adibidez, adina, sexua, maila sozioekonomikoa, testuinguru soziala edo naturala, etab.

Horretaz gain, oso interesgarria iruditzen zaigu ezagutzea metodoak nola sustatzen dituen baloreak komunitatean. Hau da, ikasleengan baloreak garatzen laguntzeaz gain, gustatuko litzaiguke ikertzea bere eragina irakasleengan eta gizartean. Azken finean, hasieratik esan dugun moduan, geure helburu nagusia baita hezitzailea aldatzea eragile gisa sustatzea.



## 5. Erreferentzia bibliografikoak

- 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena, 2016-10-02an hartua, hemendik: [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri\\_2020/eu\\_2\\_proyec/adjuntos/OH\\_curriculum\\_osa.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/OH_curriculum_osa.pdf)
- Alvarez, C. eta Silio, G. (2015). El aprendizaje-servicio y las comunidades de aprendizaje: dos proyectos escolares innovadores que se enriquecen mutuamente. *Enseñanza & Teaching*, 33, 43-58, 2016-04-03an hartua, hemendik: [http://campus.usal.es/~revistas\\_trabajo/index.php/02125374/article/view/et20153324358/14036](http://campus.usal.es/~revistas_trabajo/index.php/02125374/article/view/et20153324358/14036)
- Ayuste, A. eta Trilla, J. (2003). Pedagogías de la modernidad y discursos postmodernos sobre la educación. *Revista de Educación*, 36, 219-248, 2016-09-15an hartua, hemendik: [http://www.ince.mec.es/revistaeducacion/re336/re336\\_13.pdf](http://www.ince.mec.es/revistaeducacion/re336/re336_13.pdf)
- Battle, R. (2013). *El aprendizaje servicio en España: el contagio de una revolución pedagógica necesaria*. Madril: PPC
- Bauman, Z. (2009). *Modernidad líquida*. Buenos Aires: FCE.
- Bernal, F. Y. (2013). Crisis de los valores y de la educación: fruto de la posmodernidad. *Cultura, Educación y Sociedad*, 4, 89-101, 2016-09-04an hartua, hemendik: <http://revistascientificas.cuc.edu.co/index.php/culturaeducacionysociedad/article/view/985>
- Cerrillo, M.R. (2003). Educar en valores, misión del profesor. *Tendencias Pedagógicas*, 8, 59-67, 2016-04-05an hartua, hemendik: <https://revistas.uam.es/tendenciaspedagogicas/article/view/1829/1937>
- Chevalier, J. eta Gheerbrant, A. (1988). *Diccionario de los símbolos*. Bartzelona: Herder.
- Delors, J (1996). Informe Delors. *La educación encierra un tesoro*. Madril: Unesco-Santillana.
- Ede Fundazioaren Ezagutza Zentrua. (2015). *Hacia una sociedad intergeneracional: ¿Cómo impulsar programas para todas las edades? Guía práctica*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- Fierro, A. (2004). Jalones psicoevolutivos para una educación moral. *Revista de Educación*, 335, 293-304. 2016-09-15ean hartua, hemendik: [http://www.revistaeducacion.mec.es/re335/re335\\_20.pdf](http://www.revistaeducacion.mec.es/re335/re335_20.pdf)
- Flecha, J. R. eta Puigvert, L. (2002). Las comunidades de aprendizaje: una apuesta por la igualdad educativa. *REXE*, 1, 11-20, 2016-05-11an hartua, hemendik: [https://www.innova.uned.es/webpages/educalia/las\\_comunidades\\_de\\_aprendizaje\\_una\\_apuesta\\_por\\_la\\_igualdad\\_educativa.pdf](https://www.innova.uned.es/webpages/educalia/las_comunidades_de_aprendizaje_una_apuesta_por_la_igualdad_educativa.pdf)

- Gutierrez, M. (2012). *La importancia de las relaciones intergeneracionales*. Murtzia: Universidad de Murcia, 2016-09-22an hartua, hemendik: <http://www.um.es/documents/1711782/1714101/tema7.pdf/01076203-a7e9-47d0-b872-866ebeb1ff0c5>
- Hoyos, G. eta Martínez, M. (coords.) (2004). *¿Qué significa educar en valores hoy? Educar en valores es crear condiciones pedagógicas y sociales*. Bartzelona: Octaedro.
- Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua, 2017-01-28an hartua, hemendik: <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pdf/USWEB035407.pdf>
- Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, para la mejora de la calidad educativa. Agencia Estatal Boletín Oficial del Estado, 295, de 10 de diciembre de 2013, 2016-10-02an hartua, hemendik: <https://www.boe.es/buscar/pdf/2013/BOE-A-2013-12886-consolidado.pdf>
- Londoño, E. (2008). Los valores frente a los efectos de la globalización: ¿crisis de valores o crisis de transmisión? *Ágora, USB*, 8, 199-223, 2016-06-14an hartua, hemendik: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5373064>
- Lopez, M. (2005). *Educación la libertad. Más allá de la educación en valores*. Alcala de Guadaira, Sevilla: Trillas.
- Marchesi, A. eta Diaz, T. (2007). *Las emociones y los valores del profesorado*. Madril: SM.
- Parra, J.M. (2003). La educación en valores y su práctica en el aula. *Tendencias Pedagógicas*, 8, 69-87, 2016-04-03an hartua, hemendik: <https://revistas.uam.es/tendenciaspedagogicas/article/view/1830/1938>
- Pastoureau, M. eta Simmonet, D. (2006). *Breve historia de los colores*. Bartzelona: Paidós.
- Prieto, E. (2008). El papel del profesorado en la actualidad. Su función docente y social. *Foro de Educación*, 10, 325-345, 2016-09-14an hartua, hemendik: <http://forodeeducacion.com/ojs/index.php/fde/article/view/163/120>
- Puig, J.M. et al (2006). *Aprendizaje Servicio. Educar para la ciudadanía*. Bartzelona: Octaedro.
- Sanchez, M., Kaplan, M. eta Saez, J. (2010). *Programas intergeneracionales. Guía introductoria*. Madrid: Ministerio de Sanidad y Política Social, Imsero, 2016-09-22an hartua, hemendik: [http://www.aepumayores.org/sites/default/files/Programas Intergeneracionales Col eccion Manuales Guias IMSERSO %202010.pdf](http://www.aepumayores.org/sites/default/files/Programas%20Intergeneracionales%20Colleccion%20Manuales%20Guias%20IMSERO%202010.pdf)
- Tapia, M. N. (2001). *La Solidaridad como Pedagogía*. Buenos Aires: Ciudad Nueva.

- Tejada, J. (2000). La educación en el marco de una sociedad global: algunos principios y nuevas exigencias. *Profesorado, revista de curriculum y formación del profesorado*, 4, 1-9, 2016-04-03an hartua, hemendik: <https://www.ugr.es/~recfpro/rev41ART1.pdf>
- Valls, R. (2000). *Comunidades de Aprendizajes: una práctica educativa de aprendizaje dialógico para la sociedad de la información*. (Tesis doctoral). Barcelona: Universidad de Barcelona, 2016-05-11an hartua, hemendik: [http://www.tesisenred.net/bitstream/handle/10803/2929/01.RVC\\_1de2.pdf?sequence=1](http://www.tesisenred.net/bitstream/handle/10803/2929/01.RVC_1de2.pdf?sequence=1)
- Zerbikas Fundazioa (2008a). *Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren sakelako gida*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa, 2016-05-18an hartua, hemendik: [http://www.zerbikas.eus/wp-content/uploads/2016/01/0\\_eu.pdf](http://www.zerbikas.eus/wp-content/uploads/2016/01/0_eu.pdf)
- Zerbikas Fundazioa (2008b). *Nola jarri abian Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu bat*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa, 2016-05-22an hartua, hemendik: [http://www.zerbikas.eus/wp-content/uploads/2016/01/1\\_eu.pdf](http://www.zerbikas.eus/wp-content/uploads/2016/01/1_eu.pdf)